

KONTAKETA LEIHAKETA - KALE NAGUSIA

HERRIAREN BIHOTZA

Urteak Bidasoaren jarioa bezala pasatzen badira ere,
Kale Nagusiko oroitzapenak berdinak izaten segitzen dute,
Nostalgia eta zorionaren aterpe bat,
Nun bizitakoaren esentziak jendea lotzen duen, herri oso baten besarkada batean.

Rataplanen lehen notak entzuten direnean airean, urrunean, denbora gelditzen da. Haizeak etxetik etxera zintzilikatuta dauden banderola gorriekin jolasten du eta hauek tradizio baten erritmorra mugitzen dira, berritzen den arren, bere funtsa galtzen ez duen tradizio bat.

Espaloiean elkarri begira gelditzen gara, begiak izarrez beterik, jakinda hurrengo minutuetan datorrena.

Aldi berean, lehen konpainiek Artaleku kalea igotzen bukatzen dute, mendi errusiar baten lehen malda-gora bezala. Bakoitzak korapilo bat du sabelean. Gogoia, beldurra, poza eta tristeziaren nahasketa bat bezalakoa. Bai espaloiean, bai bidean, pertsona orok korapilo berdin hori du. Gogoia eta poza sentitzen ditugu urte osoan itxaron dugun momentua iritsi delako. Tristezia ere sentitzen dugu denok, kale Nagusitik zentzu horretan pasatzeak, gauza bat bakarrik esan nahi duelako: eguna bukatzea doa. Urte osoan itxaroten dugun eguna bukatzean dago eta atzera kontua berriz hastera doa.

Txapel gorriak pasatzen doazen bitartean, haien artean aurpegi ezagunak bilatzen goaz, hor daudenak eta ez daudenak. Pertsonak aurkitu, agurtu eta oroitzen ditugu. Batbatean « Aita! », « Osaba! », « Guapa! », « Aitona! », « Guapo! » dioten garraxien arteko buila handi batean murgilduta gaude. Denak elkarri lotuta gaude, saltoka, kantari, pozez betetako malkoak masailetatik isurtzen zaizkigun bitartean. Kale Nagusia herri baten bihotza balitz bezala, belaunaldi guztien artean pilpilean hasten da. Gure alpargatetan geroz eta sakonago sartzen garen bitartean saltoz salto, desagertzen doaz egunean zehar sentitutako neke eta minak. Txaloak, negarrak, garraxiak, txistuak, zarata,... eztarrian eta belarrietan min dugu baina ez guke nahi munduan beste inun egon momentu horretan. Hor dago gure lekua. Gure herriaren irri eta malkoen artean, kale Nagusian.

Gaur, atzo bezala, kale horrek bere historia eta bere oroitzapenak gordetzen ditu eta gu, Irundarrak, begiak izarrez beterik, urtean zehar leku horretatik pasatzen gara, kale horrek gordetzen dituen momentu preziatuak oroitzuz.

Kanpoko jendeari gure barruko oihartzun hau azaltzea zaila zaigu, sentimendu honek gure ariman baitu erro. Zaila da gure barneko sentimendu hori azaltzea, jaiogarenetik gurekin doan sua baita, kale Nagusian Ekainaren 30an irundarrok sentitzen duguna.

Maia Darrieussecq Aranzabal